



Bihotza negar eta irri Maryse Condé

Batzuetan, idazterakoan, oso ezaguna zaigun zerbait aipa dezakegu, baina ez du zertan ezaguna izan irakurlearentzat. Horixe da jarraian transkribatzen dudan liburuaren hitzaurretik aterata dagoen paragrafo honen kasua; honela dio, hitzez hitz:

[...] «Zegamako kanpandorretik, frantziparrak larre heraiz-hazpandarren usnatzeko xantza emanen ziolako uste putzantuan ibili baita astoa —irriz zagonk, barrez zagonk—, Tuteratik etorri asto zaharra, arrantza flako baina franko, korutik eroria»¹.

Badirudi ipuin edo istorio moduko bat dela, hitzaurrearen egilearen familiartean oso ezaguna eta hamaika bat alditan kontatua (gainera, nork kontatzen zuen, kolore dialektal bat edo beste hartzen zuen kontaerak: zegok, xagok, zagonk); hala ere, litekeena da irakurle askok istorio horri buruzko erreferentziarik ez izatea.

Esan nahi dut ez genukeela inoiz ahaztu beharko ez dugula geure lepokorako idazten, irakurleentzat baizik; eta horrek berdin balio duela hitzaurre baterako, kazeta-lan baterako edota beste edozertarako.

Hau esanda, utz dezagun argi eta garbi: Joxe Mari Berasategi Zurutuzak, berriro ere, bete-betean asmatu du eta itzulpen ezin ederrago baten aurrean jarri gaitu. Midas erregearen antzera, itzultzaile honek ukitzen duen guztia urre bihurtzen du. Hori bai, bati baino gehiagori irakurketa hau korapilatsu gerta dakioke, batez ere Ipar Euskal Herriko terminologiaren erabilera gatik.

Eta ea zergatik jo duen Iparraldeko euskalkietara? Bada, hobe bere hitzaurrean hori argitu izan baligu, Erriberatik ustez datozen astoekin berak bakarrik ulertzen dituen txistek egiten denbora alferrik galdu beharrean. Dena den, pentsatzen dut izan dela Maryse Condék narrazio hauetan erabilitako idazkerari nolabaiteko ordaina emateko, hau da, Guadalupeko (itsasoz haraindiko frantziar lurraldeko) frantsesari eta egilearen berezko hizkuntz berezitasunei nolabaiteko ordaina emateko.

¹ «Zegamako kanpandorretik, ipar-haizeak larreko heraiz-hazpandarrak usaintzeko zortea emango ziolako uste harroan ibili baita astoa —irriz zagonk, barrez zagonk—, Tuteratik etorritako asto zaharra, arrantza flako baina franko, korutik eroria».

Itzultzaileak koine batekin egin du topo, akaso, eta Ipar Euskal Herriko euskalkiak aproposak iruditu zaizkio frantses «koloretsu» (exotiko?) baten efektua irudikatzearen. Estrategia horrek, baina, Ipar Euskal Herriko irakurle batentzat ere balio al du...? Agian bai, zeren sintaxia gehiago baita Hego Euskal Herrikoa, mugaz bestaldekoa baino. Hala balitz, hizkeraren «exotismoa» bermatuta legoke, kasu batean terminologia mestizoa dela medio, eta bestean sintaxi mestizoa dela bide. Hala ere, suposizioen munduan ari naiz.

Garbi gera bedi: nik itzulpen honekin ez dut arazorik; aitzitik, antologikoa dela iruditu zait.

Bigarren aldiz ekin diot Maryse Condéren liburua irakurtzeari, eta badakit hirugarrenik ere irakurriko dudala. Sentitzen dut liburu-saltzaileengatik, baina horrelako harribitxi batekin topo egiten dudanean, ez dut presarik nire altxorrari adio esateko, hots, liburua apalategian utzi eta hartaz ahazteko. Liburuak ematen didan plazera ahalik eta gehien luzatzen saiatzen naiz honelako kasuetan —denborak, errepikamenak eta nekeak nire lilura higatu arte.

Eta hona iritsita, gogoeta txiki bat ere egin genezake, «Kontsumismoa eta irakurketa» izenburupean. «Asko» irakurtzeko tema hori, kantitatean arreta handiagoa jarritz kalitatean baino... Eta ez naiz, oraintxe bertan, irakurtzen ditugun liburuaren kalitateaz ari, baizik eta gure irakurketen kalitateaz. Mundu honetan argitaratu diren (eta argitaratzekoak diren) liburu guzti-guztiak irakurri behar al ditugu, irakurle gisa (edota okerragoa oraindik, pertsona gisa) geure buruarekin pozik sentitzeko? Ondo dago irakurketa bizitzan zehar bidaide izatea, baina tresna hutsa dena bihurtu behar al dugu helburu? Eta hala balitz, noiz joko genuke betetzat? Hiru, lau... sei mila liburu irakurtzean? Edo, agian, gutxienez hamabost mila liburu irakurri behar al ditugu, eskuratu dugun azken liburutik sudurra altxatzen eta bizitzari aurrez aurre begiratzen ausartu baino lehen... 80 urterekin jada? Egia esan, irakurketaren ideia kuasi-eliztar eta zenbatekoz erdi hierarkizatu hori ez da oso erakargarria gertatzen. Ez dakit, baina jarrera horrek gehiago ekartzen dit gogora giza erokerietako edozein, jarduera osasuntsu, beharrezko eta dibertigarri bat baino.

Digresioak alde batera utzita eta lehengo hariari helduz berriro, pentsamendu lotsagabe hau igaro zait burutik: «Joxe Mari Berasategi Zurutuzaz gain beste euskal itzultzailearik ez balego, ez nuke beste inor faltan botako». Gehiegikeria hutsa da, badakit, baina... horraino kordokatzen eta mugiarazten nau barrutik itzultzaile honen jeinuak.

Lexikoa dela eta, irakurketan zehar behin baino gehiagotan galde egin izan diot nire buruari itzulpen hau ez ote den esperimenteren bat... Aukeran, nahiago esperimendu gutxi topatzea nire bizitzan (barkatuko nauzue, baina gero eta hurbilago nago Egiptoko momien sekretua aurkitzetik, eta gauza jakina da

zeinen nekosoia den txakur zahar bat trikimailu berriekin entretenitzea, oso asmoz onez saiatu arren; areago, arrazoi didaktikoengatik izanda ere).

Mugaz gaindiko euskalkietatik hartutako hitz kopuru handia gorabehera, liburua bere horretan irakur daiteke. Izan ere, hitz asko ez dira hain «arrotzak» (alta, ele, emazteki, emeki, igan, jin, nehoiz, oren, ontsa, pot, promenatu, sehi, uroski, etab.); eta badira testuinguruari esker eta euskararen, gaztelaniaren edo frantsesaren beste sinonimo batzuekin duten antzekotasunari esker igar daitezkeen hitzak. Baina, era berean, hitz askotxoren kasuan, bietako bat gertatuko zaizu: edo hitz horien esanahia ezagutzen duzu, edo ez duzu oso ondo jakingo zer ari zaren irakurtzen.

Gauza bat argi dago: zenbat eta hobeto ezagutu erabilitako hiztegia, orduan eta ulermen maila handiagoa izango duzu liburuaz, eta beraz, orduan eta gusturago irakurriko duzu.

Horregatik guztiagatik, Hego Euskal Herrian ohikoak ez diren liburuko hitzen zerrenda egiteko lizentzia hartu dut². Eta jarraian, liburua hirugarrenik irakurtzeari ekin diot, oraingoan arreta handiagoa jarriz narrazioan narrazioaren alderdi formaletan baino.

Bide batez esanda, zerrendatxo hau ziur ez datorkigula bat ere gaizki anai ditugun euskalkien lexikoari buruz daukagun ezagutza zertxobait zabaltze aldera.

Maryse Condéren ipuinak, oro har, zuzenean harira doaz eta oso iradokitzaileak dira. Neskato (oraindik jaiotze gabe) baten begietatik abiatuz, pertsona helduen sekretuak, portaerak eta jokabideak argitzen saiatzen da Maryse Condé, gurasoak oinarri hartuta. Arraza(keria), kolonialismoaren eskutik bereganatutako kultura, eta lehen ipuinetik atentzioa ematen duen beste zerbait: «alienatu» terminoa. Honela definitzen ditu Sandrinok (Maryseren nebak) bere gurasoak: pare bat «alienatu». Hona hemen egileak berak ematen digun definizioa: «Alienaturiko pertsona bat da entseatzen dena ezin izan daitekeena izatera, zeren ez baitu maite den hura». Hau irakurri bezain laster, galdera bat etorri zait burura: zenbat alienatu daude munduan? zenbat zehatz-mehatz Euskal Herrian? Ni neu ez al naiz «alienatu» horietako bat izango, apika...? Honaino lehen ipuina. Baina, zehaztasun, «pintzelkada» askoz gehiago ditu; lau orriko ipuin ezin oparoago bihurtzeraino, hain justu. Bestalde, ia-ia esango nuke ipuin honetan gehiago dela aditzera ematen dena esaten dena baino. Hasiera ezin hobea. Euskal Kostaldeari buruzko aipamen labur bat badago; haurraren gurasoak harro agertzen dira «Mont Saint Michel, Kosta Urdina eta Euskal Kosta» ezagutu izanaz (Paristik inoiz atera ez diren paristar asko ez bezala, egilearen hitzetan). Udako oporrak Parisen igarotzen badituzte

² Irukin honen bukaeran topatuko duzue.

ere, protagonistaren eta bere familiaren sorterrria Guadalupe uhartea da (Antilla frantsesak). Bere gurasoek, ordea, ez dute Paris oporleku gisa bakarrik ikusten; metropolia ere bada (frantziar kulturaren arima!), zeinetaz txit zoriontsu, harro eta esker oneko sentitzen diren.

Neskatoaren ahotsa beti nagusitzen da narrazio labur baina intentsitate handiko hauetan, pubertarora eta, azkenik, helduarora iritsi bitartean. Egileak, ordea, ez du presarik. Bere amaren haurdunaldia nolakoa izan zen, mundura nola etorri zen eta une hartan zer ari zen gertatzen ere kontatzen digu... Beti ematen ditu irudi oso koloretsuak, bere familia barrutik (galeriari begira bakarrik ez) nolakoa den nabarmentzen duten xehetasunekin zipriztinduta. Argitara ateratzen ez den egia baten bilaketan, nolabaiteko larritasuna sumatzen zaio beti. Baina ukitu ironiko eta burlazko batez mozorrotua.

Klase borroka ezin falta kolonia frantsesean: klase oneko haurrak eta klase txarreko haurrak. Protagonista lehenengoena da. Haren gurasoak beltzak dira baina ondo kokatuta daude. Noski, kontraste horiek ez dira oharkabean pasatzen, are gutxiago populazioaren zati handi batentzat bizitza oso txarra den leku batean. Beraz, horrek ere neskaren arreta erakarriko du. Egia esan, Maryseren gurasoek miseria horretatik ihes egitea lortu dute; eta, are gehiago, frantziar gizartearen parte direla pentsatzera iritsi dira, eta bai, gizarte horren parte dira, baina «alienatu» pare baten modura (Sandrinoren hitzetan). Azken batean, Guadalupe kolonia frantziarra da; bertakoak ez dira zuriekin elkartzen, eta neskak protagonistak horretaz jabetzeko denbora izango du. Izan ere, inor ez da besteekin «nahasten»: beltzak beltzekin, zuriak zuriekin, mulatoak mulatoekin, kreolak kreoleekin... Tira ba, erromatar enperadoreak zioen bezala: «Zatitu herria eta irabaziko dek, motel».

Adiskidetasuna ere garrantzitsua da, eta holaxe jartzen da agerian «Yvelise» izeneko narrazioan. Egileak, bere minikontakizunetako bat amaitzen duenean, esaldi bat utzi ohi du hor, airean bueltaka edo... Oso esaldi iradokitzaileak dira, oroitzapen bakoitzari amaiera duina ematen diotenak (kontakizun txiki bakoitza oroitzapen bat dela esan daiteke). Kostunbrismoaz ere hitz egin genezake, hau da, kontakizun gehienetan Guadalupe uharteko bizitza agertzen zaigu. Ipuin multzo hau familia-saga laburtzat ere har daiteke, baina ikuspegi kolektibo batetik interpretatzeko modukoa; hau da, batzuetan, gure bizipenak kontatzen ditugunean, komunitate baten bizipenak ere ari gara kontatzen. Edo komunitate horren zati batenak. Esan dezagun eremu pribatua gainditzen dela, eremu komun edo kolektiboan sartzeko (familia baten historia familia askoren historia ere izan daitekeelako, alderdirik orokorrenak ardatz harturik).

«Historia-Ikasgaia» izeneko narrazioan, neskato zuri bat ezagutzen du, eta honela hasten da haien arteko elkarrizketa: «Ni Anne Marie de Surville naiz. Goazen jostatzera! Baina kasu, ene amak ez nau ikusi behar zurekin, bestela

zafratuko nau». Argi dago Guadalupe uhartean zurien eta tokikoen arteko harremana nolakoa zen, liburuaren egilearen haurtzaroan, behintzat. Baina kontua ez da hor amaitzen. Neska zuriak Maryse jotzen du, zafratu egiten du; eta zergatik egiten duen galdetzen dionean, neskato zuriak honela erantzuten dio: «Zafratu behar zaitut, beltza baitzara». Maryse Condé haurrak ez du erantzun argirik jasotzen gai deseroso batzuei buruz galdetzen duenean; helduen sekretuetako bat dela ulertzen du, eta hobe dela horri buruz galderarik ez egitea. Aurrerago, Maryse Condék, helduaroan, bere galdera guztien erantzuna aurkituko du.

Bere amari buruz egiten duen erretratua emakume gogor batena da, zeinarekin beti izango baitzuen harreman zaila. Baina, barru-barrutik, ikaragarri maite zuen. Arazoa da bietako inork ez duela bilorik ahoan, eta horren ondorioz, haien arteko tentsioa sortzen da, bai eta nolabaiteko ulertezintasuna ere. Gainera, oso desberdinak dira. Maryse belaunaldi berri batekoa da, aurreko belaunaldiarekin haustera etorria. Beste munduko gauza ez dena, funtsean... Izan ere, horrelakoxeak izaten dira gurasoen eta seme-alaben arteko harremanak. Gainera, gauza gutxik ihes egiten diote haur baten begiradari.

Heriotzarako lekua ere badago, nola ez. «Mabo Julie» izeneko ipuinean gauza asko kontatzen dira: herri xehe eta apalak pairatzen dituen gaixotasunak; Maryse Condék Julie neskameari zion maitasuna (horrek jeloskor jartzen zuen ama, eta ez da harritzekoa, amari kosta egiten baitzaio bere sentimenduak azalratzea, ahuleziatzat edo oso frantsesa ez den jokabidetzat jotzen baitu); beilatokia, hildakoaren etxearen deskribapena, kalea, jokalariak, taberna eta edaleak... Esan dudan bezala, ipuin bakoitza xehetasunez beteta dago.

«Gorputzen inimizazioa», dio egileak lehen maite-jolasak eta sexu-esperientziak aipatzerakoan. Neskatoa handituz doa. Nolanahi ere, hurrek ere sexualitatea deskubritzen dute, euren erara. Ez dago ezer txarrik horretan (pertsone heldu batek esku hartzen ez badu). Maryse Condéren umore finak den-dena betetzen du beti, baita gauzak kontatzeko daukan naturaltasunak ere.

«Bihotza negar eta irri. Ene haurtzaroko istorio egiazkoak», irakur daiteke liburuaren azalean. Egia esan, kontatzen dituen istorioak hain dira errealak, non «irrealtasun» kutsua ere badute, egilearen oroitzapenak geure egingo bagenitu bezala distantziatik iritsita (nondik iristen diren beti oroitzapenak). Eta hain iradokitzaileak dira...

Marysek, bere zintzotasunarekin, maite dituen pertsonak hilduratu, zauritu egiten ditu, baina gaiztakeriarik gabe egiten du, neskato baten xalotasunarekin. Hark berak, handik zenbait urtetara, hala onartzen du, esanez: «Ez dago egia erran beharrik, nehoiz ez, sekula ere, maite dituzunei». Bai, ziurrenik ez da aholku txarra...

Arrazen arteko ezberdintasunek markatzen dute, nolabait, Maryseren bizitza. Eta, haurtzaroaren ikuspegitik hasita, desberdintasun horiek barneratzen ditu. Baina beti dago Maryse salbatzen duen zerbait: bere umore fina; egoera horiei guztiei buruz eta egoera horiek protagonizatzen dituztenei buruz ironizatzeke, haiek parodiatzeko eta haien lepotik barre egiteko duen gaitasuna.

Familia guztietan izaten da hipokrisia apur bat, eta Maryse Condék inozentziaz baina errukirik gabe ateratzen du hipokrisia hori argitara, neskabila narratzailearen ikuspegia indartuz.

Maryse Condé ez da istorioak, pasadizoak, oroitzapenak eta abar kontatzera mugatzen; hizkuntza aberats, askotariko eta koloretsu bat ere eraikitzen du, bere konplexutasun eta guzti.

Badira, halaber, gordintasunez kontatutako eszenak; esate baterako, «Lehen planoan» izeneko ipuinaren haur-egitea —neskatila txiki baten begietatik dena ikusteak ematen dion xalotasun egiazkotik urrundu gabe, jakina.

Gero, jauzi bat dago eta Paris agertzen da. Aldiz, Paris hau jada ez da haurtzarokoa, ez da udako oporretako Paris berbera. Orain egilea ikasle gazte bat da —ikastera, bere etorkizuna lantzerantz, unibertsitateko karrera bat noizbait egitera etorria baita, teoriarantz—. Haurtzaroa atzean uzten ari da. Gauzak ulertzen hasi da, hala nola arrazakeria, arraza beltzak jasandako esklabotza, heriotza hurbila (Sandrino —bere anaia— larri gaixorik dago, minbiziaz), garaiko ideia komunistekin harremana du, familiarengandik (Guadalupetik) urruntzen da. Baina, aldi berean, bere jaioterriari lotuta segitzen du bere oroitzapenetan. «*Larru-beltz maska-zuri bat nintzen*», dio... Hasten da bere burua beste era batean deskubritzen; bai eta mundua aurkitzen ere; «*engaiamendu politikoaz*» mintzo da egilea...

Baina Guadalupera ere itzultzen da, eta kontatzen du nola berraurkitzen duen uhartea, gurasoek oparitu dioten bizikleta urdin batekin. Haurtzaroari agur esaten dion nerabe bat da, hilabete barru Parisera itzuliko dena, lizeoan bere ikasketekin jarraitzeko. «Besarkaldi hartan gorde nahi dut oroitzapena», dio (amaren heriotzari erreferentzia eginez), bere kontakizun laburrak amaitzeko erabili ohi dituen esaldi iradokitzaile eta hunkigarri horietako batean.

16 urterekin, etxetik urrun, nortasun errebelde eta hezigaitz baten jabe, Maryse Pariseko lizeora itzuli da, konbentzioei jarraitzeko prest ez dauden horietako bat dela argi eta garbi uzteko. Esan bezala, Maryse —beltz arrazakoa eta hizkuntza aldetik frantziar peto-pettoa— familia on batetik zetorren, erdi mailako burgesiatik zetorren, baina, nerabe guztiekin gertatzen den bezala, bere bizkar zorro propioa zekarren. Bizkar zorro hau, aldiz, arindu egin behar, bizitzako bidezidorretan barna urrats sendo eta bizkorrez ibiltzen hasi aurretik.

Azkenean, Maryse Condéren haurtzaroa bere azken ziklora iristen da, eta munduko haur guztiek egiten dutena egiten du berak ere: txikitako txalupak utzi duen lekuan jaitsi eta hasten da mundua ezagutzen, non bere aztarna utziko duen eta non beste batzuek beren aztarna utziko dioten.

Eta amaiera gisa, egileak azken paragrafo eder bat utzi digu, transkribatzera ausartzen ez naizena, ez dudalako «expoilerrarena» egin nahi, eta nahiago dudalako zuek zeuen kabuz hura leitzea, istorio txiki-handiz betetako liburu eder honen azken orrialdera gogo onez eta adoretu iristen zaretenean.

HIZTEGIA

abantzu	ia, kasik
adats sarri-tapitua	adats sarria/trinkoa
afixa	kartel
agitu	gertatu, jazo
agur-pota	agur-musu
aharra	liskar, agirika, haserrealdi, matraka
ahuku	segizio
ahuñe	antxume
aieru	zantzu, aztarna
airezkari	hegazkinlari
aitzi	aurka, kontra
akomeatu	ondo moldatu
alabatxi	alababitxi
aldaratu	baztertu, alderatu, apartatu
alegia	egiazki, egiatan
alegia (gau guztia egon naiz alegia hila —elhuyar)	- bezala (gau guztia egon naiz hila bezala, hil izan banintz bezala)
alha	larre, bazka-zelai
alta	hala ere, alabaina, hala eta guztiz ere
anaierdi, ahizperdi	anaiorde, ahizpaorde
apailatu	prestatu
apairu	jatordu, otordu, janaldi, oturuntza
ara	era, modu, forma, molde
aranots	oihartzun
ardurenik	orokorrean, eskuarki, arrunki, jeneralean
-aren bornura	-aren barrura (itsasontzi barrura, hegazkin barrura, e.a.)
arialdi	auzolan
arrabota	garlota, kurbi
arraileria	txantxa, broma, olgeta
arrosario-konderak	cuentas de rosario, rosario
asurti ?	
atorra-has	mahuka-hutsik, mahuka-hutsean
azantz	harrabots
azieta	plater
azpatu	brodatu
aztal	orpo
baiki	egiaz, egiazki
balditu	harritu
baldoki	loki
banpez	bat-batean, tupustean, supituan
barrandan	zelatan
basakurte	basakorte, eskorta, korrale
baxo	frantzian egin beharreko azterketa baten izena
beharri-gingil	belarri-gingil
berdagailu	barazki berdea, ortuari

bere gontzetaryik jalgia itzuli zen eskolatik	bere senetik aterata itzuli zen eskolatik
bereizteak	bananduezinak
bihurdika	bihurdura
bihurdikatu	bihurritu
biritxi	bizki
birundan	buelbaka, inguruka, jira-biraka
bisean	aurrez aurre, buruz buru (vis a vis)
bizigailu	bizigai, bizigarri, elikagai, janari
bizitore	pertsona indartsua, kementsua
botiga	denda, saltoki
bulta	eraso // aldi
bulta baten buruan	alditxo baten buruan, handik gutxira
bulunbatu	kulunkatu
burrusta	olde, aldra
bururdi	burki
buxoi	tapoi
damurik	zoritxarrez
deboilamendu	nahasmendu
deboilatu	asaldatu, burua nahastu, aztoratu
dentela	parpaila, puntilla
domaia	tamal
dutxulu	kanila
eiki	dudarik gabe
ekuratu gabe	gelditu gabe, eten gabe
elekatu	hitz, berba edo solas egin
emazteki	emakume
emendio	gehitzapen, gehigarri
enegu	enheiu, ernegu
enfoskatu	zarpiatu
enoagarri	aspergarri, gogaikarri
enoatu	aspertu, gogaitu
entseatu	saiatu
eroxka	ero hitzaren txikigarria, erotu xamar dagoena
erreisitu	arrakasta izan
erreposki	poliki, pausatuki
erridau	gortina
errientsa	maistra
erroitza	amildegi, leiza
erroma	ron
eskalapoi	trakets, dorpe
esnez hantu	esnez bete, esnez oparo, esnez hanpatu
euria jauts ahal(a) bota	euria goian behean egin
fazoin	modu, era
ferafutro igorri	norbait antzarak ferratzera bidali
fier	harro
firlingatu	arropa baten hariak galtzen edo askatzen hasi, listu, zirpildu
fite	azkar
floka	begizta
frantzipar	ipar-haize
frikun	alproja
futitu	trufatu, burla egin

galai	gizon ederra
galant	eder, polit-polita
gamela	ganbela
gantzugailu	ukendu, gantzu
gatzil	gatzgabe
gisu	kare
gizandi	erraldoi
gizonki (emazteki)	gizon, gizonezko (emazte, emakumezko)
goait	zain
gohaindura	goragale, gonbitalarri
gormandiza	sabelkeria
gurutzefika	gurutze
haguntsu	apartsu
haidor	harro
haizu izan	ausartu // zilegi izan //
hantu	hanpatu
haro	zalaparta, iskanbila, abarrots
harroin	zutabe
hastiagarri	gogaikarri, amorragarri
hastiatu	gorrotatu
hatsantu	arnasa estutu, hatsanditu
hats-bahi	arnasestuka,
haurride	anaia, neba edo arreba
hauta	bikain
herexa	aztarna, arrasto
hetsi	itxi
hizkatu	liskartu, haserretu, mokoka aritu, sesioan ibili
hormagarri	izozteko moduko
hozki	hozkamin
hupaturik	igota, altxata
hurrandu	hurbildu
-i buruz	-rantz, alderantz
igan	igo
ihakin	keinu, imintzio
ihakin	burla, iseka, trufa...; irain, ladio;
ihakinka	keinuka, imintzioka
ilki	atera, irten
irian (laurak irian)	aldean (laurak aldean)
irin	hauts
irian	aldean, inguruan
iskilinba	buruorraz
istapeka	zangalatrau, hankalatraba
izari	zuhurtzia, zuhurtasun; neurritasun
izari	neurri, tamaina
jabaldu	baretu
jankatu	hortzikatu, hozkatu, haginkatu
jargi	eserleku
jargi(a)	banku, eserleku
jarri	eseri
jats	erratz
jautsi	jaitsi
jenatu gabe	gogaitu gabe, nekatu gabe

jendez ihaurri	jendez lepo, jendez beteta, jendez josita
jin	etorri
jite	joera; jaidura
kadira	aulki
kalipu	kemen, adore
kalpar	ile-mataza, ile-adats, ilaje
kameu	kamafeo
kantail	zoko, bazter, ertz
kantika	kantu, abesti
kantitu	mugitu, higitu; hunkitu
kar	irrika, gurari, antsia, desio
kari	zio, arrazoi // dela-eta // kariz //
kario	garesti
karreu	karraba (= carreau de tailleur)
karsoil	burusoil
kasaila	iskanbila, kalapita, zarata
kausera	kruxpeta, moñogorri
kilimiliklik (edo ikilimiliklik) irentsi	zurrutada batez, zanga-zanga irentsi (edan)
korrale	arkupe, ataurre, portale
kuarta	
kukurusta	gandor
kukurusta	olaturgain
kusi, kusina	lehengusu, lehengusina
kuskuil	kizkur, kiribil
kuskuilatu	kizkurtu
lanjer	arrisku
lapa-lapa jan ?	
larrazken	udazken
larre heraiz-hazpandar	(larreko belar baten izena?)
leherra	asko, ugari
letxi	
linja	arropa zuria
liztafin	liztor
luneta	betaurreko
mahunga	mahuka
mako	gako
makola	makulu
malestruk	dorpe, trakets, baldar
malestrukeria	dorpekeria, baldarkeria, e.a.
malur	zoritxar
mariegalandear	mariegalandekoa (gentilizio bat)
markestu	koskatu, akastu, hondatu
marrakatu	marratu ; urratu
marraza	aizto, matxete
marruma	urruma, orro
maska	maskara, mozorro
mauska-mauska	mauka-mauka
mazela	masail, matela
mehail	argal, mehe
mehats	mehe, argal
mehatu	mehetu, argaldu
mendre ; den mendren(a)	txiki; den txikien(a)

ments izan	falta izan
meta	pilo, andana
mihise	izara
miko bat	pittin bat
mindulin	milika
mirail	ispilu
mokanes	eskuzapi
mundrun	alkaterna (alquitrán)
mundrunatu	alkaterna edo mundruna eman
murrurutun	zakar, lehor, ezatsegin
mustika	eltxo
mutxi	lizun, urdin (moho)
nabal	laban
nardatu	nazkatu
nehoiz	inoiz
ninika	begi-nini
oies	zakar, latz, lakar
oinbide	espalo
okupu	haurdun
okupu agitu	haurdun geratu
ontsa	ondo; asko
oren	ordu
pagauso	pago-uso, basauso, mendiuso
paldo	makila, taket, hesola, zarta, zutoin
panpaka	taupaka
papo	bular, bularralde, kolko
papoa hanpatu	paparra atera
pariatu	lepoa egin, egin; apustu egin
pegesa	huskeria, txikikeria, ezerez, ziztrinkeria
pentze	larre, belardi
pertsona zoritua	pertsona heldua
petatxatu	adabakitu
petxero	manupeko, jopu, mirabe, mendeko
peza	zati, parte, multzo
pikoan ezarri	puntu-puntu jarri
pindar	txinpart
pitika	antxume
pitxo	zakil
pleini izan	kexu izan
pleinitu	kexatu , arranguratu, deitoratu
pot	musu
poxelu egin	traba egin, enbarazu egin
poxi bat	pixka bat, pittin bat, apur bat
prefosta	zalantzarik gabe, ezbairik gabe
prezatu	preziatu, estimatu
promenatu	paseatu
pulunpatu	murgildu
puntalakurlo	erretxin
pusa eta pusa	bultza eta bultza
pusatu	bultzatu, bulkatu
putiko	mutiko
putzantu	putz-hantu, harroputz
puxant	ahaltsu, boteretsu

sakatrapu	metalezko tresna, arma baten kanoitik trapuak ateratzeko erabilia // trapu-piloa
sakreka	birakoa
sargia	sarrera / abegi (?)
satisfos	nahikotu, asebete, alai, pozik
sehi	mirabe, jopu, neskame, morroi, otsein
sorkan aritu	elkarri bultzaka aritu
sor-seinale	orezta, tita
supizteko	pospolo
tanko	puntueltasunez, puntualki
tartarika	berriketa, hizketa
-tik baratu	-tik gelditu, -ari utzi
tipust-tapastean	bat-batean, supituan, berbertan, ezustean
titakatua	titaz edo orbanaz beteta
toleatu	oinazetu, tormentatu
tolet	tolete, txaplata, broga // ziri / tolet
torratu	igurtzi
traka	itxura, eite
trebesa	itsas-bidaia
trebukatu	estropezu egin, behaztopa egin
trenpatu	busti
trenputxartu	ondoezik jarri, alditxartu, ondoeztu, gaixotu
trukada	truke, aldaketa
tutaka	turutaka
ukaraia	eskutur, eskumutur
ukaraiko	lepoko
ulitxa	eltxo
ulitxetan izan	umore txarrean egon
urintsi	koipetsu
uros	zoriontsu
uroski	zorionez
usaian	normalean, eskuarki, orokorrean, eskuartean
usnatu	usaindu
uxter	samur
uzkaili	irauli
xahako	zahato
xanpa	txanpa, txau-txau // alarau
xantza	zorte, zori
xingili-jokoa	txingoka jolasa
xingilka	txingoka, oinka-oinka
xintximari	odol-edale, uzan/izain
xirmi-xarmaz	sorginkeriaz
zaharo	zarta, zigor, zartailu
zai	gona
zangar	berna, zango
zango-paldo	zango-makila (?)
zapatu	zapaldu, hertsu
zare	saski, otarre, otzara
zerratu	itxi
zertako	zergatik
zilin	ahul

ziliportatu	ziprztindu
zilo	zulo
zimardi	ekiboko, nahaste
zirringil	txirbil, txiri
zirtzikatu	birrindu, zatikatu, laurdenkatu
zitori	lili, azuzena

Azken gogoeta.-

Liburu honi buruzko azken gogoeta bat daukat, liburuaren ustezko «aberastasun terminologikoarekin» lotua. Eta «ustezko» diot; izan ere, itzulpen hau irakurtzeko ia ezinbestekoa den hitz-zerrenda hau gorabehera, itzulpenak ez dakar berekin lexiko benetan berritzaile edo aberasgarririk, kontzeptualki hitz eginez; oro har, oinarrizko hitz sinonimoak dira, nolabait esatearren.

Adibidez, «aharra» terminoa. Nik, Euskaltzaindikoa izan gabe, hitz bat baino gehiago ezagutzen dut gauza bera adierazteko: «liskar, agirika, haserrealdi, matraka, ika-mika...». Eta osatu dudan zerrendako hitz gehienekin gauza bera gertatzen da: «pegesa = huskeria, txikikeria, ezerez, ziztrinkeria»; «petxero = manupeko, jopu, mirabe, mendeko»; eta abar, eta abar, eta abar.

Gure herrialdeko ez dakit zein puntataraino joatea eta «Eureka, beste sei hitzekin adierazten nekien gauza bera adierazteko hitz bat aurkitu dut!» oihukatuz handik itzultzea... Hori niretzat ez da aberastasun lexikoa. Asko jota, gure «sinonimoen kutxa» handitzea da, edo beste euskalki batzuen lexikora hurbiltzea. Berez ez dago gaizki, eta hain zuzen, jakiteak ez du lekurik betetzen. Baina ez gaitezen engaina: terminoak falta bazaizkigu, ziur egon arazo hori ez dugula konponduko euskalkietara joz oinarrizko sinonimo bila. Gainera, jarrera horrek sentiarazten nau denbora guztian ibiliko banintz bezala bueltak eta bueltak ematen... leku beretik atera gabe. Eta sentsazio hori ez zait bat ere gustatzen.

Aldiz, kontzeptu berri bat izendatzen duen hitz bat topatzea hori oso bestelakoa da niretzat. Adibidez: «arrabota = garlopa, kurbi (zurgintzako tresna bat)»; edo «kruxpeta» hitza ez nuen ezagutzen, eta «buñuelo»ren ordezkoko ona dirudi; edo «mundruna = alkaterna» («bike» hitza erabili izan dut nik beti, beharbada oker; alkaternatik ateratako gai bat da, antzekoa baina berdin-berdina ez omen dena, oso erabilia bada ere honelako testuinguruetan: errepidea bikeztatu behar dute, e.a.).

Eta, azken batean, horixe zen itzulpen honetan erabilitako lexikoari buruz egin nahi nuen azken hausnarketa. Ipar Euskal Herriko itzultzaile batek hitz horiek guztiak bere ezagutza linguistikoaren parte direlako erabiltzen baditu, irudituko zait... ondo ez, bikain irudituko zait; baina bestela, ezin diot neure buruari galdetzeari utzi horrelako planteamendu bat ez ote dagoen... lekuz kanpo.

